

## **Zuretzat, atte...**

Atte: aurki sei urte dira gure artetik joan zinela. Amarentzat, ordea, denbora geratuta dago harrez gero.

Eta pasa den azaroan ondoeza izan zuen: ohetik jaikitzean lurrera erorita aurkitu zuen biloba batek. Eskerrak San Martin festak ziren!! Horregatik erretiratu bait zen amonaren etxera, biloba. Badakizu, ez zigun inor ametitzen etxean bere zaintzaile, eta bakarrik bizi zen. Zumarragara eraman genuen eta han sendatu ondoren, Lazkaoko zaharren egoitzan izan genuen hilabetez.

Bitarte horretan, zu hil geroztik galarazten zizkigun obra txikiak eta bestelakoak egin genituen zuen etxean, bere "ezkutuan": bainuontzia kendu eta dutxa jarri; zuen koartoa pintatu armairua mugitu araziz langileei, lizundutako pareta saneatzeko; pasilloa eta sukaldea ere pintatu zizkieten; zuen ohea kendu eta egokitutako elektriko horietakoa jarri genion berari; salan sofa berria jarri genuen lehengoa kenduta... Eta garrantzitsuena, 24 orduko zaintza bermatzeko langilea kontratatu genuen. Guztia, esan bezala, ama Lazkaotik Eguberri biharamunean etxera ekarri aurretik.

Oheko aldamenetako babes-langak jarrita lokartzera behartu genuen hasieran. Baina babes-langaren eta ohe atzekoaren tarteko zirrikitutik jaikitzen zen gauetan komunera joateko, zaintzaileari txirrina jotzeko guk emandako aginduari kasurik egin gabe. Azkenean etsi egin genuen eta orain ez diogu babes-langa igotzen.

Azaroan, San Martin egunaren bezperan ingresatu genuenetik ez da kalera atera Ataunen. Ez du nahi. Lazkaon gurpildun-aulkian ateratzen genuen.

Baina orain COVID-19 izeneko birus bat dela-eta, etxean gauzkate mundu guztian zeharrekoak!! Koronabirusa eta horri ihes egiteko konfinamendua ahoz aho darabilgu egunero denok. Badakit ez dela erraza zuk ulertzea kontu hau, baina ama lehendik ere bere borondatez, eta gu orain behartuta, guztiok etxetik atera ezinik gauzkate gaixotzeko beldurrez, dagoeneko bigarren hilabetera bidean. Eta amari besarkada eta bi muxuak ematea, gerorako utzia dut, birus hori gutako edozeinek izan eta beste bati pasatzeko aukera dagoelako. Baina gutxienez aitzakia hau balia dezaket geure etxetik ateratzeko lizentzia hartu eta amarengana joan eta berarekin kontu kontari aritzeko.

Baina begira atte, amarekin izaten ditudan ohiko elkarrizketa batzuk:

- Ama, sentitzen dut baina gaur ere ez dakarkizut ba, kontu "txarrik": inor ezagunik ez da hil, inor gaixotu denik ere ez dakit...
- Koronabirusak egunero hiltzen ditu ba, bazter guztietan!
- Bai, ama, baina gure ingurukorik ez, momentuz, zorionez...
- Lanera joan gabe-eta bazaudete ba, e...

- Lanera bidean hasi dira batzuk, baina ni, beste asko bezala, etxetik ari naiz.
- Ta nola ba, hura lanera eta zu etxean?...

Orain, igande arratsaldea da, asteburu honetan berarekin nago, zuen hiru seme-alabon artean betetzen bait ditugu zaintzailearen eguneroko bi orduko atsedenaldiak eta asteburuak:

- Zer daukazu telebistan, ama? Duela 33 urteko pilota partida?!!
- Bai... Eta zer eduki behar dut ba? Attek horixe ikusten zuen gustura.

Atte, ez da pilota partidarena bakarrik!!: aste barruan ere, telebistan zure gustukoak ziren programak edukitzen ditu; zuk ura edateko erabiltzen zenuen botilak hor segitzen du sukaldeko bere ohiko txokoan; pasilloko alfonbra kentzen ere ez digu uzten, zu bizi zinenean hor zegoela-eta...

Segi dezadan amarekin hizketan...

- Ama, terraza honi ere arindu bat eman beharko diogu: zapata-altzari hori bota-eta. Bestalde, paretan duzun Arantzazuko fraile horrek aspaldi utzi zion eguraldia asmatzeari... Eta eguzki-lore hori ere ez zen betirako.
- Attek jarritakoak dira horiek...
- Baina, adibidez, zapatentzako hori alferrik dago eta zaharkitua egoteaz gain, tokia kentzen dizu alfer-alferrik...
- A, utz iezaiozu horri, umea...

Atte, dena horrela. Ea, pozten nauten jarrerak ere baditu, noski: zuk zeure buruarentzat egin zenuen sukaldeko aulki tzarra erabiltzen du orain berak. Eta salako sofa berrian egiten duen denbora gutxia, bere burua gurekin egotera behartuta ikusten duena da: segituan altxatu eta sukaldera joaten da, bere gerriarentzat egokiagoa omen delako zure aulkia.

Badira, ordea, horiekin guztiarekin harritu ez bazaitut ere, nik esan gabe ere asmatuko zenituzkeenak: otorduz otordu zer jaten duen? Horixe bera: zehatz-mehatz badakizu!! Ez du ezer desberdinik ahoratzen; aspaldi etsi genuen ahaleginean: nik jaten dudan entsaladari begira, zu, azkenerako letxugak haizatu egiten zintuela eta jateari utzi zeniola... Nik aprobetxatzen dut hizpidea, gogorazteko nola, zenbat urtetan zuk aldatutako letxuga, tomate, tipula eta bestelakoak jandakoak garen, hasieran Dornain gure jaiotetxean eta gerora Kalakaseneko lurretan izan zenituen baratzetatik... Baina eta, ordea, haxe komeria, gauza horiek ahazten ari zaizkio: ez ditu bere buruan gordeak, ez behintzat bat-batean gogoratzeko moduan...

Eta haxe da esan nahi nizuna: badakizu zerk ematen didan beldurrik handiena, atte?... Ez, berak bere ohitura zurrunean jarraitzeak; ez, uneoro

zu aipatzen aritzeak; ez, ezta ere, bizitzen jarraitzeko gogo aspaldi galdu izan zitzaionak; ez... Beldur naiz memoria galtzeaz ez ezik, uneoroko zereginetarako buruak erantzungo ez dionaz aurki, pixkanaka...

Horregatik erabaki dut, aurrerantzean are eta kontzienteago biziko ditudala berarekin pasatako orduak: ez naizela haserretuko gauza bera behin eta berriz errepikatzen badit, edo, aurre horretan esan edo galdetu didana berehala berriz aipatzen badit ere, behin eta berriz, lehenengo aldiz ari balitzait bezala. Eta ulertzera helduko al naiz, noizbait zu egunean zehar hainbat aldiz ez ezik, hainbat egunetan segidan ere, aipatzen ez bazaitu... Orduan jabetuko naiz, aurrez esan dizkizudan zure aipatze etengabe horietan zela bere buruaren jabe, gure ama.

Hitza ematen dizut, zahartzaroko dementziak eraginda zutaz ahaztuko balitz eta uneoro aurrez aurre izango gaituen gu geu ezagutzeko ere, gaitasunik gabe geratuko balitz inoiz, gu izango garela zutaz eta bere buruaz hitz egingo diogunak. Etengabe, orain arte bera zutaz ari zaigun bezalaxe. Guk ez bait dugu presarik amak nahiko lukeen desioa bete dadin, alegia, lehenbailehen zuregana joateko nahi hori. Guk, orain arte bezala "zurekin" baina hemen, gurekin nahiago dugu bera-eta.

Ba hori, atte: orain berari, amari idatziko diot beste gutun bat, zuri idatzi dizudala esanez, baina zer esan dizudan gu biontzat gordez. Gezurrik ez, gure artean, baina ez dago hirugarren bati egia guztiak zertan esan.

**EGURGIA**